

Esp. zk: SUBV_EVAL_INDIV/2023/17

Dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, Iruñeko ikastetxe publikoetan eta itunduetan jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko. 2023-2024ko ikasturtea

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) letran zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua](#)).

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Hezkuntza, Berdintasun eta Kultur Aniztasuneko Zinegotzi Ordezkaría
3. Alor kudeatzailea:	Hezkuntza, Berdintasun eta Kultur Aniztasuneko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Dirulaguntzak emateko prozesua arautzea, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan 2023-2024ko ikasturtean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egin daitezen, betiere deialdi honen B.3) apartatuan xedatutako baldintzak eta betebeharrak betetzen badituzte.
2. Deialdiaren helburua: Deialdi honen xedea da Iruñeko ikastetxeetako hezkuntzaren kalitatea hobetzeko ekinbideei babes ematea eskola-curriculum osatzeko ikastetxeetan egindako jardueren bidez, eta aisia-programen garapena sustatzea, diruz lagunduta hala jarduera osagarriak nola eskolaz kanpokoak egitea, 2023-2024ko ikasturtean, Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, eta baita Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan zein Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeetan ere, izan publikoak, izan itunduak.
3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak eta epeak: Deialdi honen babesean dirulaguntzen xede izaten ahalko dira Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduetan, Hezkuntza Bereziko zentroetan eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publiko nahiz itunduetan 2023-2024ko ikasturtean zehar (2023ko irailetik 2024ko ekainera) eginiko jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak. Jardueretan ikasleek hartu beharko dute parte, eta ikastetxeko irakasleek zuzenduko dituzte. Dirulaguntza honen xede diren jarduerak Iruñeko Udalak % 100ean diruz lagunduko ditu eta doakoak izanen dira ikasle guztientzat. Ezin izanen dute dirulaguntzarik jaso deialdi honen babesean, honako hauek: - Udalaren edo Nafarroako Gobernuaren programetan edota deialdietan sartutako jarduerak. - Curriculumaren edozein gairi buruzko ikaskuntzan laguntza emateko modu erregularrean ematen diren

eskolak edo jarduerak, edo curriculumekoak ez diren beste batzuk, hala nola mekanografia, informatika eta abar.

- Kanpaldiak, ikasketa-bidaia, gai bati buruzko asteak eta, oro har, bi eskola-egun eta gau bat baino gehiago hartzen dituzten bidaia oro.

4. Baloratzeko betekizunak, bideak eta lehentasunak:

☒ BAI ☐ EZ

Diruz lagundutako jarduerak deialdi honetako C.3) apartatuan zehazten denarekin bat baloratuko dira.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdian gehienez ezarritako zenbateko osoa: 175.760 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/32630/450000
80/32630/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntzaren zenbatekoa honela kalkulatu da:

- Deialdi honetarako ezarri den zuzkidura ekonomikoaren % 30 hainbana banatuko da eskolaz kanpoko jardueren eta jardura osagarrien gaineko programa-aurrekontua aurkeztu duten ikastetxeen artean.

- Gehienez ere ezarri den zuzkidura ekonomikoaren % 25 ikastetxe eskatzaileen artean banatuko da, bakoitzaren guztizko ikasle-kopuruaren arabera.

Gehienez ere ezarri den zuzkidura ekonomikoaren % 35 ikastetxe eskatzaileen artean banatuko da, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren erroldan ikastetxe bakoitzak zenbat "ikasle babesgabe" gisara erregistraturik eduki eta horren arabera. Datu horiek ofizioz eskatuko dizkio Udaleko Unitate Kudeatzaileak Hezkuntza Departamentuko dagokion sailari, eta errolda ixteko datatzat hartuko da deialdi hau onesteko txostenarena.

- Gehieneko diru-zuzkiduraren % 5 hainbana banatuko da programa-aurrekontuan neska-mutilen arteko berdintasuna sustatu edo laguntzeko gutxienez jardura bat txertatzen duten ikastetxe eskatzaileen artean. Irizpide hori aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak ezin izanen du, bakarka, aurreko irizpideak aplikatuta dagokien zenbatekoaren % 20 gainditu.

- Gehieneko diru-zuzkiduraren % 5 hainbana banatuko da programa-aurrekontuan Ikaskuntza eta Zerbitzuko proiektu bat gutxienez txertatzen duten ikastetxe eskatzaileen artean. Irizpide hori aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak ezin izanen du, bakarka, 1., 2. eta 3. irizpideak aplikatuta dagokion zenbatekoaren % 20 gainditu.

Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxeek eta Hezkuntza Berezikoek ikastetxeen arabera dagokien kopurua jasoko dute bakarrik.

4. Urte anitzeko deialdia: ☒ BAI ☐ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

5. Urtekoak:

Urteko arrunta:	0 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa (2023)	175.760 €	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

Deialdi honi heltzen ahalko diote Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta Hezkuntza eta Helduen Oinarritzako Hezkuntzako ikastetxeek, publikoek eta itunduek, 2023-2024ko ikasturtean zehar (2023ko irailetik 2024ko ekainera).

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskaerarekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

Emaniko dirulaguntza zein xedetarako jaso eta horien gastuak estaltzeko baino ez erabiltzea, parte hartu duten ikasleen familiei inolako ekarpen ekonomikorik eskatu gabe.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko diote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☐ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntza eskatzerakoan aurrekontu-programan aurkeztutako jarduerak aldatzen ahalko dira ikastetxearen eta eskola-egutegiaren beharren arabera, ordeztan ahalko dira ikastetxeko ikasleendako interesgarriagoak direnekin, eta are bertan behera uzten ahalko dira egoerak ezinezko egiten badu jarduera horiek egitea. Edozein kasutan, onuradunek dirulaguntzaren xedearekin bat egin beharko dute derrigorrean emandako dirulaguntzaren gastua. Jarduerak gauzatzen ez badira, itzuli egin beharko da gauzatu ez eta beste batez ordeztu ez den jarduerari dagokion zenbatekoa.

Aldaketak oinarri hauetan ezarritako baldintzak betez egin beharko dira, eta justifikatzeko unean aurkeztu beharko dira, Ñ apartatuan ezarritakoarekin bat.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak non aurkeztu:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "eskabide orokorra eta erregistro elektronikora bidaltzea" delako izapidearen bidez. Tramite horri deialdi honetako G.4 apartatuan aipatutako agiriak erantsi behar zaizkio.

2. Eskaerak aurkezteko epea: **HOGEI EGUN NATURAL (20), deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.**

Aipatutako epeetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak interesdunak edo zuzenbidean baliodun den edozein bide baliatuta ordezkari dela egiaztatzen duen pertsona batek sinaturik aurkeztutako eskabide bidez egin behar dira, deialdi honen I. eranskineko ereduarekin bat. Eskaerarekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Eskaera batek ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan badaude, haien ordezkari erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ahalko da indarrean direla egiaztatzeko, bertan adieraziz noiz eta zein organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokio, nork eman zituen edo non dauden jasota; hori guztia, betiere, ez badira bete bost urte baino gehiago agiriei dagokien prozedura amaitu zenetik.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu hartuta, ziurtatzeko eskatzaileak bete

egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko, honako agiri hauek:

☐ Administrazio eskudunek emandako ziurtagiriak.

☒ Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, ziurtatzeko aipatu betebeharrak eguneratuak dituela. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidearen bitartez adieraziko du.

Eskatzaileak egunean eduki beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena ematen den unean.

Udalak aurreko paragrafoko baldintzak betetzen diren egiaztatuko du VII. eranskina aurkeztu duten eskaeren kasuan. Aipatu eranskina aurkeztu ez duten eskaeren kasuan, eskatzaileek egiaztatu beharko dute baldintza horiek betetzen dituztela dagozkien administrazioek emandako ziurtagiriak aurkeztuta, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamenaren aurretik.

d) Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen elkarteren bat bada –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da elkarteko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarrekin onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (Ikusi, behar izanez gero, deialdi honen III. eranskina). ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

IV. eranskinarekin bat

g) Adierazpen bat, non adieraziko baita deialdi honen babesean garatutako jarduerak doan izanen direla horietan parte hartzen duten ikasleendako, eta horretarako, familiei ez zaiela ekarpen ekonomikorik eskatuko. V. eranskina

Agiriek jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuek, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

H. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa: Espedienteak jaso ahala tramitatu eta ebatziko dira, horretarako aurrekontu-krediturik dagoen bitartean, betiere deialdi honen B.4) apartatuan zehaztutako betekizunen, moduen eta balorazio-lehentasunen arabera. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientearen kontuan harturik, eta ebatzeko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: SEI HILABETE

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

I. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

J. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahaliko dira:

Ikastetxeko irakasleek zuzendu eta ikasleek egiten dituzten jardueren gastuak, ikastetxean argitaratutako egunkaria edo aldizkaria barne, baldin eta ikastetxean erabilgarri dituzten baliabide teknikoek eta mekanikoez baliatuta argitaratu bada.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat joko dira deialdi honen J.2) apartatuan ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak: ☐ BAI ☒ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

- Material inbentariagarrien edo kirol-ekipoen erosketak.
- Udalaren edo Nafarroako Gobernuaren programetan edota deialdietan sartutako jarduerak.
- Curriculumaren edozein gairi buruzko ikaskuntzan laguntza emateko modu erregularrean ematen diren eskolak edo jarduerak, edo curriculumekoak ez diren beste batzuk, hala nola mekanografia, informatika eta abar.
- Kanpaldiak, ikasketa-bidaia, gai bati buruzko asteak eta, oro har, bi eskola-egun eta gau bat baino gehiago hartzen dituzten bidaia oro.
- Eskola-esparrutik kanpo inprimategian editatutako eskola-egunkaria edo -aldizkaria.

- Jardueretako monitoreendako, laguntzaileendako edo arduradunendako diru-sariak edo opariak, eta joan-etorrietarako edozein dieta.

2. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuak egiteko epea: 2023ko irailaren 1etik 2024ko ekainaren 21era bitarte.

K. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa:

L. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, letra honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoa. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra:

☐ BAI ☒ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa:

M. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☐ BATERAGARRIA ☒ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek erdietsi direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

N. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntza emateko baldintza izanen da 2024ko aurrekontuan kreditu egokia egotea, eta hura indarrean sartzen bada eta baldintza hori betetzen bada, honela ordainduko da:

- Emandako dirulaguntzaren % 75, ordainketa aurreratu gisa, 2024ko aurrekontua indarrean sartzen den unean.

- Gainerako % 25a, diruz lagundutako jardueren programaren justifikazioa behin aurkeztu eta baloratu ondoren, 2024ko aurrekontuaren kargura.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketak bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

Ñ. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☒ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta:

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☒ Justifikazio-kontu erraztua:

Honako agiri hauek erantsiko ditugu:

a) Ebaluazio-memoria, dirulaguntzen xedea den jardueraren gainean, non xehetasunez aitortuko baitira dirulaguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua. Memoriak honako hauek jasoko ditu:

- Programaren edo proiektuaren izena.

- Dirulaguntzaren xedea, aurkeztutako aurrekontu eta proiektuarekin bat.

- Egindako jarduerak eta erdietsi nahi ziren helburuen zein lortutako emaitzen deskribapena.

- Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak. VIII. eranskina

b) Jardueren doakotasuna justifikatzen duen zinpeko adierazpena VI. eranskina.

c) Egindako gastuen eta jasotako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, VIII. eranskinarekin bat.

Dirulaguntza zer jardueretarako erabili eta horien gastuak justifikatzeko fakturen edo beste agiri batzuen kopia sinpleak, betiere modu korrelatiboan ordenaturik eta zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Bide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabilia aurkeztuko dira.

e) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz. Ez da gastuen frogagiririk aurkeztu behar horien kopurua 100 euro baino gutxiagokoa bada.

Laginketa-tekniken bidez, telematikoki aurkeztutako frogagirien % 20 egiaztatuko da, betiere horien guztizko zenbatekoa diruz lagundutako gastuaren % 30era iristen bada.

Behin gauzatutako jardueri dagokien justifikazioa aztertu eta gero, Udaleko teknikari eskudun batek balorazio-txosten bat egin eta sinatuko du. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena:

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: 2024ko ekainaren 30a bitarte

O. DIRUA ITZULARAZTEKO BERARIAZKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoietakoa batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☐ BAI ☒ EZ

P. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta haiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka, errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta

biharamunetik aitzina.

- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epategiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

Q. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

Oinarri hauen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak edo eztabaidak oro honako hauekin bat etorrira ebatziko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea eta aplikagarri diren gainerako arauak.

R. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ **I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.**

☒ **II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.**

☒ **III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.**

☒ **ERANSKIN OSAGARRIAK.**

IV. ERANSKINA: Programa-aurrekontua

V. ERANSKINA: Doakotasun-aitorpena, jarduera abiatu baino lehen

VI. ERANSKINA: Jardueraren doakotasuna justifikatzen duen deklarazioa

VII. ERANSKINA: Datuen gaineko kontsulta egiteko baimena

VIII. ERANSKINA: Ebaluazio-memoria eta Ziurtagirien zerrenda zenbakitua eta sailkatua

-I. ERANSKINA-
-DIRULAGUNTZA-ESKAERA-

PERTSONA EDO ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZietateAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		TELEFONOA
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	
[EZABATU EZ DAGOKIONA] BERE edo HONAKO HONEN IZENEAN*:					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZietateAREN IZENA				NAN, IFZ, AIZ edo IFK	
JAKINARAZPENETARAKO DATUAK					
IZEN-ABIZENAK EDO SOZietateAREN IZENA					
NAN, IFZ, AIZ edo IFK			HELBIDEA		
Zk.	ESKAILERA	SOLAIRUA	PK	HERRIA	TELEFONOA
FAXA		HELBIDE ELEKTRONIKOA			

Jakinaren gainean nago NAO n argitaratu dela (Zk:; Data:) dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko deialdia, xede honetarako:

ESKATZEN DUT: Eskaera kontuan har dadila. Horretarako, honako agiri hauek aurkezten ditut:

- ☐ Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak.
- ☐ Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. eranskina eredu gisa hartuta, ziurtatzeko pertsona edo entitate eskatzaileak bete egiten dituela Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra eta deialdi honek exijitzen dituzten baldintzak, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen diren onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen.
- ☐ Ziurtagiria, pertsona edo entitate eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzeko, deialdiaren G.4) apartatuan zehaztutako moduarekin bat.
- ☐ Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturik helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. (III. eranskina).
- ☐ Memoria bat, dirulaguntza zertarako eskatu eta proiektu, ekintza, jarrera edo jarduera hori deskribatzen duena.
- ☐ Deialdi honen G.4) apartatuan zehazten diren agiriak.

Iruñean,(e)ko.....aren(e)(a)n.
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Hezkuntza, Berdintasuna eta Kultur Aniztasuneko Alorrak emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko -zuzenak ez badira- eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.

OHAR GARRANTZITSUA – Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.

-II. ERANSKINA-
-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA-

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):

NAN: Telefonoa:.....

Faxa: Helbide elektronikoa:

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Faxa: Jakinaren gainean nago dirulaguntzen deialdia egin dela,
banakako ebaluazio-araubidean, xede honetarako:

ADIERAZPENA:

- Bete egiten ditut onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak aipatzen dituen betekizun orokorrak eta Deialdi honetan ezarritako berariazko betekizunak oro.
- Ez nau ukitzen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikulua onuradun izateko aipatzen dituen debeku-zioetako bakar batek ere.
- Egunean ditut zergeri nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Konpromisoa hartzen dut eskatutako dirulaguntzaren zenbatekoa erabiliko dudala dirulaguntza emateko oinarritzat hartu diren helburuak eta jarduerak betetzeko.
- Konpromisoa hartzen dut adierazpen honek zehazten dituen inguruabarrak ziurtatzeko, errekerimendua noiz egin eta hortik hamabost eguneko epean, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 15.7 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako, agiri hau egin, eta sinatzen dut,

Iruñean,(e)ko.....aren(e)(a)n.
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Hezkuntza, Berdintasuna eta Kultur Aniztasuneko Alorrek emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko -zuzenak ez badira- eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.



-III. ERANSKINA-

-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZA ESKATU IZANAREN GAINEAN-

Izen-abizenak:

Helbidea (jakinarazpenetarako):

NAN: Telefonoa:.....

Faxa: Helbide elektronikoa:

Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):

Helbidea:

IFZ:

Telefonoa: Faxa: Jakinaren gainean nago dirulaguntzen deialdia egin dela,
banakako ebaluazio-araubidean, xede honetarako:
.....,

ADIERAZPENA, ESKATUTAKO DIRULAGUNTZARI BURUZ:

- ☐ Ez diet ezein dirulaguntza eskatu, deialdi honen xede bererako, nazioko edo nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste ezein partikularri -ezta haiengandik halakorik jaso ere-.
- ☐ Dirulaguntza hauek eskatu dizkiet, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edo beste edozein partikularri:
- ☐ Dirulaguntza hauek jaso ditut, deialdi honen xede bererako, nazioko zein nazioarteko administrazio publiko, erakunde publiko zein pribatu edota partikular hauen eskutik:

Eskatutako dirulaguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Jasotako dirulaguntzak: (zehaztu data, entitatea eta zenbatekoa)

Iruñean, _____ (e)ko _____aren _____(e)(a)n

(Sinadura)

JARDUERA OSAGARRI ETA ESKOLAZ KANPOKOEN PROGRAMA-AURREKONTUA.
2023-2024ko IKASTURTEA

IKASTETXEA:.....

ZUZENDARIA (Izen-abizenak):.....

IKASLE KOPURUA, GUZTIRA:.....

EGIN NAHI DIREN JARDUEREN ZERRENDIA:

Jardueraren izena *	Hartzaile diren ikasmailak/ikasleak	Arduradunaren izena	Jarduera, noiz	Gastuen aurrekontua	Kontzeptua	Aurreikusitako diru-sarrerak
						0

*Hala bada, adierazi neska-mutilen arteko berdintasuna sustatu edo laguntzen duen jarduera bat den.

V. ERANSKINA

AURRETIKO ZINPEKO DEKLARAZIOA – JARDUERAREN DOAKOTASUNA

Izen-abizenak: _____ NAN: _____
Helbidea: _____ Telefonoa: _____
Faxa: _____ Datu horien jabeak,

_____ ikastetxeko zuzendari gisara, Iruñeko Udalak **2023-2024ko ikasturtean** ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko emandako dirulaguntzaren justifikazioari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

2023-2024ko ikasturtean, Iruñeko Udalak jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko dirulaguntzen deialdian aurkeztutako jarduerak guztiz doan direla parte hartzen duten ikasle guztiendako.

Iruñean, 20____(e)ko _____aren ____ (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Hezkuntza, Berdintasuna eta Kultur Aniztasuneko Alorrak emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.

VI. ERANSKINA

JARDUERAREN DOAKOTASUNA JUSTIFIKATZEN DUEN ZINPEKO DEKLARAZIOA

Izen-abizenak:_____ NAN: _____
Helbidea:_____ Telefonoa:_____

Faxa:_____ Datu horien jabeak, ikastetxeko zuzendari gisara,
Iruñeko Udalak **2023-2024ko ikasturtean** ikastetxean jarduera osagarriak eta eskolaz
kanpokoak egiteko emandako dirulaguntzaren justifikazioari dagokionez,

ADIERAZTEN DUT:

_____ jarduera, hain
zuzen, egin dela familiek inongo ekarpen ekonomikorik egin gabe.
.

Ikastetxeak ez duela dirulaguntzarik jaso beste administrazio publikoetatik edo entitate
pribatuetatik, justifikatutako jarduerak egiteko. ☐ BAI ☐ EZ

Iruñean, 20____(e)ko _____aren ____ (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun Hezkuntza, Berdintasuna eta Kultur Aniztasuneko Alorrak emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari baino ez zaizkio jakinaraziko, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.

VII. ERANSKINA

BAIMENA ZERGEI NAHIZ GIZARTE SEGURANTZARI BURUZKO BETEBEHARRAK BETETZEAREN GAINKO DATUAK KONTSULTATZEKO.

Izen-abizenak:, NAN:
..... Bere izenean edo honako entitate hau ordezkatzuz (ezabatu ez
dagokiona)*:
.....
..... IFK: Helbidea:
.....
.....

BAIMENA:

Baimena ematen diot Iruñeko Udalarari (P3120100G IFK), kontsulta egin dezan neure pertsonaren datuen gainean eta neure zergei zein Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak betetzearen gainean, onuradun izateko *Iruñeko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko dirulaguntzak banakako ebaluazio araubidean emateko deialdian. 2023-2024ko ikasturtea.*

Xede horretarako, baimen hau sinatzen dut Iruñean, 20__ (e)koaren(e)(a)n.

(Sinadura eta zigilua)

- Pertsona juridiko baten ordezkaritzan arituz gero, ordezkaritzaren gaineko egiaztagiria aurkeztu beharko da.

VIII. ERANSKINA

EGIAZTAGIRIEN ZERREDA ZENBAKITUA

Zk.	DATA	FAKTURA zk.	JAULKITZAILEA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	NOIZ ETA NOLA ORDAINDUA
1						
2						
3						
4						
5						
6						
7						
8						
9						
10						
11						
12						
13						
14						
15						
16						
GUZTIRA:						

(Atxikita doaz jatorrizko fakturak)

Iruñean, 20____(e)ko _____aren ____ (e)(a)n

Sin.: Ikastetxeko zuzendaria

Ikastetxearen izena: _____

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:
Helburuak:
Lortutako emaitzak:
Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



<u>GUZTIRA</u>						

Ikastetxearen izena:_____

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:
Helburuak:
Lortutako emaitzak:
Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



<u>GUZTIRA</u>				

Ikastetxearen izena:

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:

Helburuak:

Lortutako emaitzak:

Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



GUZTIRA-----euro					

Ikastetxearen izena:

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:

Helburuak:

Lortutako emaitzak:

Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



GUZTIRA-----euro				

Ikastetxearen izena:

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:

Helburuak:

Lortutako emaitzak:

Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



GUZTIRA-----euro				

Ikastetxearen izena: _____

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:

Helburuak:

Lortutako emaitzak:

Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



GUZTIRA ----- euro				

Ikastetxearen izena:_____

Jarduer(ar)en / proiektu(ar)en deskribapena:
Helburuak:
Lortutako emaitzak:
Aldaketak IV. eranskinari dagokionez (programa-aurrekontua):

[illegible]



GUZTIRA ----- euro				